

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

181/2024 Foru Agindua, abenduaren 2koa, ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokien sariak ematen duena, 2024ko deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 23ko 437/2024 Erabakiaren bidez, deia egin zen ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokien sarietarako.

Deialdiaren bosgarren oinarriaren arabera, eskaerak aurkezteko hamabost egun balioduneko epea egon zen, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta; hortaz, 2024ko irailaren 23an amaitu zen.

Epea amaituta, sei eskaera jaso dira, honako erakunde hauenak:

– Estampaciones Rubí, SA 2024ko irailaren 18an sartu zen erregistro elektronikoko komunean eta 202490500014470 erregistro zenbakia du.

– A&B Laboratorios de Biotecnología, SA 2024ko irailaren 19an sartu zen erregistro elektronikoko komunean eta 202490500014507 erregistro zenbakia du.

– Gasteiz On 2024ko irailaren 20an sartu zen erregistro elektronikoko komunean eta 202490500014530 erregistro zenbakia du.

– Intergaiak Iniciativas de Desarrollo Sostenible, SL 2024ko irailaren 20an sartu zen erregistro elektronikoko komunean eta 202490500014552 erregistro zenbakia du.

– Atom Modular, SL 2024ko irailaren 23an sartu zen erregistro elektronikoko komunean eta 202490500014650 erregistro zenbakia du.

– Óptimus 3D, SL 2024ko urriaren 7an sartu zen erregistro elektronikoko komunean eta 202490500015476 erregistro zenbakia du.

Azken eskaera hori epea amaitu ondoren aurkeztu zen, eta, beraz, ezin da izapidetzeko onartu.

Erabaki horren eranskin gisa onetsitako oinarri arautzaileetan, zehazki zazpigarren oinarrian, ezartzen da ezen epaimahaiak izango duela hautagaitzak baloratzeko eta sariei buruzko epaia emateko eskumena. Erabakia diputatu nagusiari helaraziko dio, eta hark emango du ebazpena.

Sari horiek jasotzeko hautagaitzak aurkezteko epea amaituta, epaimahaiak, zeina urriaren 15eko 140/2024 Foru Dekretuaren bidez izendatu baitzen, 2024ko urriaren 16an eman du haien gaineko epaia, hartarako egindako aktaren arabera.

Horregatik, epaimahaiaren epaia ikusita, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokien sari hauek ematea:

– Lehenengo saria (5.000,00 euro) AB Laboratorios de Biotecnología SAren proiekturako (Deskarbonizaziorako ekintza anitzeko metodologia).

– Bigarren saria (3.000,00 euro) Gasteiz On proiekturako (Ostalaritza #KlimarenAlde).

– Hirugarren saria (2.000,00 euro) Estampaciones Rubí SA enpresaren proiekturako (10. lerroko prozesua hobetzea -VAN EA Mercedes fabrikazio ikuspuntua-).

Bigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzako kasuan kasuko zerbitzuek irabazleei transferentzia bidez ordain diezaietela 10.000,00 euroko zenbatekoa. Sari horiek honela ordainduko dira, eta dagokien atxikipena egingo zaie:

– 5.000,00 euro AB Laboratorios de Biotecnología SAri (IFK- A01316637 eta BP- 10000510), Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldirako gastu aurrekontuko “02100. G/920021/47900026 GJH9 sariak” aurrekontu partidaren kontura.

– 3.000,00 euro Gasteiz Oni (IFK- G01420546 eta BP- 10006388), Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldirako gastu aurrekontuko “02100. G/920021/47900026 GJH9 sariak” aurrekontu partidaren kontura.

– 2.000,00 euro Estampaciones Rubí SAri (IFK- A20017190 eta BP- 10000660), Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldirako gastu aurrekontuko “02100. G/920021/47900026 GJH9 sariak” aurrekontu partidaren kontura.

Hirugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke, Vitoria - Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, edo, bestela, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari berari, hilabeteko epean, bata nola bestea jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Arlo Estrategikoen zuzendaria

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO